



Eu tamén choro

  IÑIGO SATRUSTEGI

Nostalgikoak Gasteizen, queerrak Atarrabian eta gu, (dei gaitzake-zue moderno, ez naiz ezkutatuko) Donostian. Urteak neramatzan Baiuca zuzenean ikusi nahian. Azkenean gerturatu da Euskal Herrira, eta ez nolanhiko areto batera. Orain arte ikusi ditudan kontzertu onenetako batzuk Dabadaban izan dira. Galiziarrek espektatibak goian utzi ditu emanaldi aurreko uneetan. Aretoa lepo, baina dantzarako leku nahikoa. Plaza bero dago, entzuleak gogoz.

Galiziako folka eta elektronikaren *beat* leunak nahasten ditu eta ez nekien oso ongi zer espero. Bandarekin azalduko zela bagenekien, baina nola aurkeztuko zuen zalantzak nituen: zer izango da zuzenekoa eta zer aldez aurretik grabatua eta ordenagailutik *pintxatutakoa*?

Baseak, melodiak eta ahotsetako batzuk izan dira oinarrian, eta beste hiru kideek lagundu diote perkusioarekin eta ahotsetan. Soinu sintetikoaren gainetik erritmoak osatzeko erabili dituzte pandero bat, beste bat erraldoia, txapa, aitzurra, zartagina baita bieira maskorrrak ere. Tradizioa eta gaurkotasuna bat eginik.

Hori da hain zuzen buruan bueltaka geratu zaidan ideia nagusia: errespetutik eta miresmenetik, tradizioa mantendu, eta are gehiago, irauarazi egiten du Baiucak. Eta sentsazioa dut ez duela folklorea bere horretan erromantizatzen. Funtzionatzen du, eta oso ondo gainera. Aretoa ikustea besterik ez dago: *sold out*, eta dantzaka, kantuka dena ematen ari diren ikusleak. Galiziatik ehunka ki-

lometrora, galegoz euskaldunak. Bada esperantzarik.

Arreta eman digu, hala ere, abeslarien atzean bigarren planoan geratu dela askotan DJa. Ohituegiak gaude agian zentraltasuna abesten duenari ematen, eta lagun bat ausartu da Bizarrapek egiten duenarekin konparatzera. Baina tira, abestiak joan eta etorri, heldu gara amaiera aldera. Espero moduan hortxe zituen gordeak abesti ezagunak, eta momentu horretan segitzen dut oraindik... *Eu tamén choro* kantatzen, muñeiren txilioekin edo sugearen pozoiak sorgindurik. Ez nekien zer espero, baina uste dut haiek zirela benetan hain harrera beroa espero ez zutenak. Eskerturik, itzuliko direla agindu dute. Eta gu han izango gara hurrengo hartan ere. ●

BAIUCA

NOIZ: urtarrilak 6

NON: Dabadaba aretoa
(Donostia)
